

Sarritan, arrautzei beren oskola kentzen ari garenean sukaldatzerako garaian, eskuak zikindu ohi ditugu. Hori ekiditeko tresna bat proposatzen dugu.

Produktu merke bat izango da, ekoizpen-kostuak nahiko baxuak izango baitira. Ondorioz, bezeroa tresna hau erosteko prest egongo dela iruditzen zaigu, zerbitzu bat eskainiko baitio diru gutxiren truke. Gainera, oso erabilgarria suertatuko zaio, ia egunero erabiliko baitu. Beraz, gure balioa kuantitatiboa izango litzateke.

Lehiakideengandik honako ezaugarri hauengatik bereiziko gara: berritasuna, lana erraztea, prezioa, erabilerraztasuna eta eskuragarritasuna.

